



TUTANKHAMON 100 URTEZ LILURATUTA

Egipto eta Ekialde Hurbilerako espedizioak



Fotografía de 1907



araba álava
foru aldundia diputación foral

EGIPTO ETA EKIALDE HURBILERAKO BIDAIK ETA ESPEDIZIOAK



FARAOI GAZTEA

XIX. mendearen amaieratik XX. mendearen erdialde-
ra arte, Euskal Herriak, Gasteiz buru zuela, Egipto
eta Ekialde Hurbilera hainbat bidaia antolatu
zituen, benetako espedizioak izan zirenak. Aparte-
koenak 1920ko hamarkadakoak izan ziren,
Tutankhamonen hilobia aurkitu ostean.

Urtero, Espainiatik eta Hispanoamerikatik 200
pertsona joaten ziren bi hilabetez Egiptora eta
Ekialde Hurbilera itsasontziz, trenez, gurdiz,
autoz eta zaldiz eta, ondorioz, ezezagun izan
zaigun ondarea utzi digute.

Bidaiek Ekialdearekiko lilura piztu zuten eta
egiptoar kultura eta 1922an aurkitutako
Tutankhamonen altxorra ezagutzeko ardatz
nagusietako bat bihurtu ziren, iritsi zaizkigun
argazki, liburu eta dokumentalek agertzen
digutenez.

Tutankhamonek (K. a. 1342 - 1325) K. a. 1334 eta
1325 urte bitartean gobernatu zuen XVIII.
dinastiako azken subiranoa izan zen. Bere
aita Ankhenaton faraoia izango zen, eta bere
ama errege hareneko dama. Zortzi edo
bederatzi urterekin sartu zen tronuan, Ay
bisirraren babespean, bere ondorengoa
izango zena. Gazterik hil zen, arrazoi zehatzak
zehaztu ezinik eta ondorengorik gabe.



Bidaiari-taldea Kairoko Espainiar Enbaxadan,
Tutankhamonen altxorra ikusi aurretik, 1925

Erromesak Jerusalem, 1925





HILOBIAREN AURKIKUNTZA ETA ARKEOLOGIA-LANAK

Tutankhamonen hilobia Erregeen Haraneko errege-nekropolian dago. Sarrera kamuflatuta geratu zen ondorengo hipogeoan hondakinen azpian. Tebatar nekropolian hainbat esplorazio egin ondoren, Howard Carterrek eta Lord Carnarvonek 1922ko azaroaren 4an errege hilobiaren sarrera aurkitu (62 KV) eta 1923ko otsailaren 17an ganbera ireki zuten.

Hilobia ukitu gabe aurkitzeak eta bere ostilamendu fantastikoak liluratuta utzi zuten mundua. 1923ko apirilaren 5ean Lord Carnarvonen eta taldeko kide batzuen bat-bateko heriotzak maldizioari buruzko kondaira herrikoia elikatu zuen. 5398 pieza aurkitu ziren hilobiaren barruan: urrezko zerraldo bat, hilobi-maskara, tronuak, arku-tiroko arkuak, tronpetak, eskulturak, orgak, janaria, ardoa, sandaliak, arropa, daga bat, jostailuak...

Carterrek hamarkada bat behar izan zuen objektuak katalogatzeko, eta pieza bakoitzaren zenbaki eta deskribapen-ordena ezarri zuen. Argindarra lehen aldiz Erregeen Haranera eraman zuen eta burdinbide bat ipini zen Haranetik Luxorrera objektuak Kairoko Museora eramateko. Dokumentazio grafiko gisa, marrazkiak eta argazkiak erabili ziren, behin-behineko estudio batean errebelatzen zirenak eta lan arkeologikoak filmatu zituzten. Altxorraren argazkiekin postalen lehen edizio seriatuak argitaratu zituzten, hasierakoak zuri-beltzekoak eta geroago koloretakoak. 1924an eta 1928an Howard Carter Madrilen izan zen aurkikuntzei buruzko hitzaldiak emateko, gero argitaratu egin zirenak.

